



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko azaroaren 7ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko azaroaren zazpian, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : DACHAGUER Peio.

Deialdiaren eguna : 2023ko azaroaren 3a

Afitxatze eguna : 2023ko azaroaren 3a

1. ERABAKIA: ESKOLARATZE FORFAITAREN ETA ESKOLA PRIBATUENTZAKO DIRULAGUNTZAREN FINKATZEA (7.5 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari jakitera eman dio Frantziako Hezkuntza Kodeko L.442-5 artikulua araberak, Ortzaize - Arrosa Herri-arteko Pedagogia Elkartearen (HPE/RPI) lurraldean diren kontratupeko ikasgelen funtzionamendu gastuak irakaskuntza publikoko eta maila bereko ikasgelen baldintza beretan kontuan hartzen direla.

Auzapezak Herri Biltzarrari adierazi dio Ortzaize-Arrosa HPEko eskola publikoen funtzionamendu kostua honelakoa izan dela 2022-2023 ikasturtean:

- 33 107.10 euro 42,5 ikasle eskolaratzeko, Ortzaizeko eskolan. CP-CE1 mailetako ikasleen forfaitaren kalkulua ama-eskoletakoetatik desberdina da funtzionamendu gastuak ez baitira berak (besteak beste ABLA-en gastua):

	2022ko ikasturte sartzeko ikasle kopurua	Gastuak 2022/08/01 eta 2023/07/31 artean	2022-2023 eskolaratze forfaitaren zenbatekoa 2022-2023
Ama-eskolak	28	26 363.04 €	941.54 €
CP-CE1	14.5	6 744.07 €	465.11 €
OROTARA	42.5	33 107.10 €	

hots, Ortzaizeko ama-eskolan eskolaratua den haur bakoitzeko 941.54 €,

hots, Ortzaizeko eskolan CP eta CE1 mailetan eskolaratua den haur bakoitzeko

465.11 €.

- 11 422.08 € 33 ikasle Arrosako eskolan eskolaratzeko, hots 346.12 € haur bakoitzeko.

Auzapezak jakinarazi du Lakarrako haur bat Ortzaizeko ama-eskolan eskolaratua dela. Ondorioz, ama-eskolan eskolaratuak diren haurrentzako forfaiata Lakarrako herriari ordaintzea eskatzea proposatu du.

Bestalde, Auzapezak proposatu du dirulaguntzaren zenbatekoa egiazki ama-eskolan nola eskolan eskolaratuak diren eta Ortzaizen bizi diren haur kopuruaren arabera kalkulatzea.

Gainera, Auzapezak proposatu du, Ortzaizen bizi eta herritik kanpo eskola pribatuetan eskolaratuak diren haurrentzako eskolaratze forfaiata ematea. Auzapezak zehaztu du, Ortzaizetik kanpoko eskola pribatuei dirulaguntza ematea hautazkoa dela, jakinez Ortzaizek eskaintza bera ematen duela bere lurraldean.

SAINT MICHEL ESKOLA

	AMA-ESKOLA	CP-CE1	CE2-CM2	OROTARA
IKASLE KOPURUA 2022ko IRAILA	7	3	5	15
IKASLE BATEN URTEKO KOSTUA	941.54 €	465.11 €	346.12 €	
OROTARA	6 590.76 €	1 395.33 €	1 730.60 €	9 716.69 €

Auzapezak oroitarazi du Saint Michel eskolari 3 484.04 €ko aurrerapen bat onartu zitzaiola, 2023ko otsailaren 1eko erabakiz. Aurrerapenaren zenbatekoa eskolaratze forfaiataren zenbateko osotik kenduko da.

ORTZAIZEKO IKASTOLA

	AMA-ESKOLA	CP-CE1	CE2-CM2	OROTARA
IKASLE KOPURUA 2022ko IRAILA	14	4	3	21
IKASLE BATEN URTEKO KOSTUA	941.54 €	465.11 €	346.12 €	
OROTARA	13 181.52 €	1 860.43 €	1 038.36 €	16 080.31 €

SAINT MARIE DE MAYORGA – DONIBANE GARAZIN DEN ESKOLA (HAUTAZKO LAGUNTZEA)

	AMA-ESKOLA
IKASLE KOPURUA 2022ko IRAILA	1
IKASLE BATEN URTEKO KOSTUA	941.54 €
OROTARA	941.54 €

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

-Honela **FINKATU DU**, 2022-2023 ikasturteko eskolaratze forfaiata:

- hots, Ortzaizeko ama-eskolan eskolaratua den haur bakoitzeko 941.54 €,
- hots, Ortzaizeko eskolan CP eta CE1 mailetan eskolaratua den haur bakoitzeko 465.11 €.

-**KONTUAN HARTZEN DU**, 2022-2023 ikasturterako Arrosako eskolan eskolaratzeko gastua:

- 346.12 euro Arrosako eskolan eskolaratua den CE1 eta CM2 arteko haur bakoitzeko.

-**ERABAKI DU**, Lakarrako herriari haur bat Ortzaizeko eskolan eskolaratzeko 941,54 €ko forfaiata ordaintzea eskatzea,

- **ERABAKI DU**, Saint Michel eskolari 9 716.69 euroko dirulaguntza onartzea (6 232.65 + 3 484.04) 2023 urterako,

- **ERABAKI DU**, Ortzaizeko Ikastolari 16 080.31 euroko dirulaguntza onartzea 2023 urterako,

- **ERABAKI DU**, Sainte Marie de Mayorga eskolari 941.54 euroko dirulaguntza onartzea 2023 urterako,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, gai horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapideen egiteko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko azaroaren 7an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/11/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/11/14an.